

13/05/2009

Ezkio-Itsaso "Baserri Eguna ospatuko dute igandean Igartubeitin"

Igartubeitiko arduradunek Baserri Eguna antolatu dute datorren iganderako. Kizkitza Ugarteburu museoko difusio arduradunaren hitzetan Igartubeiti baserri museo bizia izateko sortu zen.

Euskal baserria ezagutarazteko dinamika hezigarriak eta aisiari lotutakoak antolatzen ditugu bertan eta oraingo honetan egun berezi hau egitea pentsatu dugu, Euskal Herriko baserritar guztiak omentzeko helburuarekin.

Goizean 10:45ean emango diote hasiera egitarauari hitzaldi batekin, baina ez Ezkio-Itsason, Hernanin baizik. Euskal baserriaren historia ezagutzeko aukera izango dute ordu horretan Chillida-Lekura joaten direnek.

Bi baserritarrei omenaldia

Ondorengo ekitaldi guztiak Igartubeitin bertan egingo dituzte. Baserri Eguna izanik, baserritarrek egindako lana aintzakotzat hartu nahi izan dute antolatzaileek eta horregatik euretako bi omenduko dituzte: Isidro Lasa eta Bittori Garcia, hain zuzen. Ugarteburuk aipatu duenez, omenaldia egiteko garaian kontutan hartu dute urteetan baserriari lotuta lan egin izana, bata gizonetzkoa eta bestea emakumezkoa izatea eta biak auzo desberdinetakoak izatea.

Isidro Lasa 1921ean jaio zen. Ezkioko Zelaa baserrikoa da eta urte askoan basogintzan aritu zen lanean. 1965etik 1977ra bitartean, Ezkio-Itsasoko alkatea izan zen. Egun jubilatuta, baserriko eginkizunei lotuta dago.

Bittori Garcia 1927an jaio zen. Itsasoko Atxusain baserrikoa da. Bere senarrarekin batera oilo eta oilasko granja zuzendu zuen eta bertan aritu zen lanean. Egun jubilatuta dago eta baserriko lanei lotuta jarraitzen du.

Omenaldia goizeko hamaiketan izango da. Dantzariak aureskua dantzatuko du eta ondoren oroigarriak emango dizkiete bi omenduei. Juan Carlos Zuloaga Nekazaritza eta Landa Ingurunearen Garapenerako Zuzendari Nagusia eta Pilar Azurmendi Kultura Ondarearen Zuzendari nagusia bertan izango dira, besteak beste.

Bertso saioa eta Gizon Proba

11:30etan Urretxu-Zumarragako bertso eskolako bertsolariek hainbat bertso abestuko dituzte. Ondoren, Gizon Proba egingo dute, Igartubeitiko parkinean. Ezkio-Itsasoko taldeak parte hartuko du bertan. Bi taldetan banatuko dira kirolariak eta nobedade gisa, bi neska ere lehiatuko dira.

Bisita gidatuak

12:30etan eta 17:30ean egingo dituzte baserrian zein interpretazio zentruan eta 12:45ean txalapartariak arituko dira .

Goizean zehar, Ezkio-Itsasoko eta Yartu elkarteko kide diren bost bizilagunek XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familia antzestuko dute. Ez da faltako trikitixa doinurik eta haurrentzako ekintzak ere egingo dituzte.

Baserriko euskal oilaskoak pintxotan

Goizean zehar Lumagorri oilaskoak erre eta pintxo moduan zerbitzatuko dituzte. Bertan ateratako dirua Hare Haizea Urola Garaiko Sahararen Lagunak elkartekoentzako izango da.

Irrintzi dantza taldeko dantzariak, Urretxu-Zumarragako bertso eskolako bertsolariak, Zumarragako trikitilariak eta antzezleak ere doan parte hartuko dute festa horretan, saharar herriari lagundu asmoz. Oilasko erre pintxoekin batera, Igartubeitin bertan egindako sagardoa ere dastatu ahal izango da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Igartubeitiko parkina Gizon Proba egiteko behar dute eta beraz, museora iritsi ahal izateko doako autobus zerbitzua jarriko dute Santa Lutziko industriagunetik museora. egitaraua

10:45. Euskal baserriaren historia hitzaldia Chillida-Lekun.

11:00. Ezkio-Itsasoko bi baserritarrei omenaldia.

11:30. Bertsolariak.

12:00. Gizon proba.

12:30/17:30. Bisita gidatuak.

12:45. Txalapartariak.

Goiz osoan zehar. Trikitixa, antzezpenak, umeentzako ekintzak, baserriko euskal oilaskoen pintxo salmenta eta Igartubeitn egindako sagardoaren dastaketa.